



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

PROTOKOLOAREN, PRENTSAREN ETA LAGUNTZA ZERBITZUEN ATALA
SECCIÓN DE PROTOCOLO, PRENSA Y SERVICIOS AUXILIARES

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAT PRENTSA DOSIER DIGITALIZATUKO ZERBITZUA KONTRATATZEA ESKAINTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOA EGITEKO ESKAERA

1.- KONTRATAZIOAREN XEDEA

Eusko Legebiltzarrak nahi du gaur egun bere erabiltzaileei eskaintzen dien prentsa-laburpeneko zerbitzua hobetzea eta era honetako produktu informatiboei eragiten dien legeria berrira egoitzea, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 32.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

Hartarako, nahi du zerbitzu horretan prestazio berri batzuk txertatzea, informazioaren tratamendurako teknologiek eta Internetek eskaintzen dituzten aukerez baliatuta, honako helburu hauek lortze aldera:

- 1.- Bai dosierraren erabilgarritasuna bai dosierrak biltzen dituen dokumentuetarako sarrera hobetzea, hartarako aurkibide nabigagarri bat sortuz, biltegirotutako irudira zuzenean bidaliko duena.
- 2.- Produktu hau web-euskarri batean kokatzea, erabiltzaileek dosierra Legebiltzar barruan eta Legebiltzarretik kanpo kontsultatu ahal izateko.
- 3.- Zerbitzua asteko egun guztietara luzatzea eta dosier digitalizatua goizeko 08:00ak baino lehen erabilgarri jartzea.
- 4.- Eskaneatzeko gaur egun erabiltzen diren irizpide tematikoak berrikustea eta hobetzea, eta hedabideen espektroa handitzea.
- 5.- Hedabide elektronikoen eskaneatzea ere sartzeko, eta dosierra gutxienez egunean behin eguneratzea era honetako euskarrietarako.
6. Dosierrak aipagai dituen jatorrizko dokumentuei dagozkien irudien kalitatea hobetzea, irudi horiek jatorrizko iturrien kalitatearekin eskainiz.

2. KONTRATATUKO DIREN ZERBITZUAK

Aipatutako helburuak lortzeko, honako bi zerbitzu hauek kontratatzea planteatzen da:





2.1.- PRENTSA DOSIER DIGITAL bat sortzea EGUNERO. Dosier horretan bildu beharko dira Eusko Legebiltzarrari buruz edo Legebiltzarrean aztertzen diren gaiei buruz argitaratzen diren informazio **GUZTIAK**, hala eremuko egunkariak **"ERREGIONALA"**, **"EUSKADI"** eta antzeko sailetan argitaratzen dituztenak, nola zabalkunde estataleko egunkariak editatzen dituzten **EUSKAL HERRIKO KOADERNOETAN** agertzen direnak. Hautaketa honen osagarri, egunkari horietan euskal politikari edo eztabaida parlamentarioei buruz azaltzen diren **IRITZI ARTIKULUAK** ere jasoko dira, zutabegileenak eta editorialak barne. Horrez gainera, hedabide digital garrantzitsuenen eskaneatzea sartuko da egunero. Legebiltzarreko Administrazioak, lehiaketa esleitzeko orduan, parametro hauetan oinarrituta planteatzen diren estaldura-eskaintzen zehaztasuna eta barietatea baloratuko ditu.

Produktuak honako prestazio hauek bermatu beharko ditu:

- Dosiera kanpoko web-zerbitzari batean kokatu beharko da, baina Legebiltzarraren web-orritik kanpo. Dosiererako sarrera babestuta egongo da, erabiltzailearen gakoaren bidez. Gutxienez 130 erabiltzaile-gako ezberdin kudeatzeko gai izan beharko du sistemak. Enpresa esleipendunak eskainiko du prestazio hau baliatu ahal izateko segurtasun-sistema.
- Hautatutako albisten aurkibidea eskainiko dio web-ak erabiltzaileari, eta harekin batera web-ean albiste osoa irakurri ahal izateko esteka.

2.2.- Aurretiaz dagoen DATU BASE bat elikatzea. Egun bakoitzeko albiste guztiekin XML fitxategi bat sortuko da, honako eremu hauek izango dituenak:

- *Atala:* Legebiltzarrak 43 terminoko zerrenda itxi bat eskainiko du, kasuan kasuko eremu-definizioarekin batera.
- *Gaia:* Indarrean dauden terminoak eskainiko dira. Zerrenda hori handitu egin daiteke.
- *Izenburua:* Orrialdeko albiste nagusiaren edo iritzi-artikuluaren izenburua.
- *Egilea:* Albistea sinatuta dagoenean.
- *Data:* Eguna, hila eta urtea adieraziko dira.
- *Hedabidea:* Kasuan kasuko albistea argitaratzen duen egunkaria.





- *Orrialdea*: Kasuan kasuko albistea agertzen den orrialde-zenbakia edo -zenbakiak.
- *Laburpena*: Albistearen edukiaren azalpen laburra.
- *Artxiboa*: Albistearekin erlazionatutako orrialdea edo orrialdeak jasotzen dituen PDF fitxategiaren izen zehatza.

2.2.1.- Zehaztapen teknikoak

1.- Legebiltzarreko Administrazioa FTP bidez konektatuko da esleipendunak esaten dion zerbitzarira, egunero egin ahal izateko honako fitxategi-deskarga hau:

- Gorago aipatutako XML fitxategia.
- PDF fitxategi-multzo bat, XML dokumentuan jasotako albiste bakoitzeko bat.

2. Legebiltzarrak esleipendunari emango dio datu-base kargatzeko prestatu behar duen fitxategiaren eredu zehatza. Funtsean, lehenago deskribatutako XML fitxategiaren oso antzekoa izango da.

3.- ESKAINTZEN ESKAKIZUNAK

Aurkezten diren eskaintzek argi zehaztu beharko dituzte honako gauza hauek:

- Eskaintzaileek dossier digitala beren web-ean argitaratzeko erabiliko dituzten plataforma teknologikoak.
- Aurreko puntuetan aipatutako fitxategi-deskarga egin ahal izateko aurreikusitako ordutegia.
- Zerbitzuaren oinarriko ezaugarriak. Zehaztu beharko dira segurtasun-sistema eta erabiltzaileen kudeaketa, bai eta erreminta eta zerbitzua erabiltzeko bermeak ere, mantenimendu-bermeak barne. Atal honetan honako hauek adieraziko dira: eskaintzen den zerbitzuaren egunak eta ordutegia, gorabeheren arretarako estrategia, gorabeherai erantzuteko batez besteko denbora, erabileraren datu estatistikoak (albiste ikusienak eta erabileraren estatistika orokorrak) erabiltzailearen araberako xehekapenik gabe, eskaini litezkeen alarma-sistemak, eta lizitatzzaileen ustez beren eskaintzei balio erantsia eman liezaiekeen xehetasun oro.





- Eskaintza ekonomikoa, zerbitzu osoaren kostua biltzen duena. Planteatutako prezian kalkulatuta egon beharko do zerbitzuaren hileroko kostua, BEZa barne.
- Dosier tekniko bat, albisteen kudeaketa eta aurkibideetan agertzen diren laburpenen idazketa egingo duen ekipoaren ezaugarriak, antolaketa eta prestakuntza zehaztuz, bai eta euskarri teknologikoko ekipoa ere zehaztuz.
- Enpresa hornitzaileek press clipping zeritzuetarako baimena eduki beharko dute, AEDE Egunkari Editoreen Espainiako Elkarteak emanda, Jabetza Intelektualari buruzko uztailaren 7ko 23/2006 Legearen 23.1 artikuluan ezarritako aurreikuspenen arabera.

Eduki horien egokitasuna Prentsa eta Protokolo Zerbitzuak aztertuko du, eskaintzaileek gorago aipatutako bost aspektu hauei buruz ematen duten informazioan oinarrituta. Alderdi teknikoei dagokienez, zerbitzu honek Informazio Sistemen Zuzendaritzaren aholkularitza jasoko du.

4. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lehiaketa honetara aurkezteko gehieneko lizitazio-zifra 50.000 eurokoa da urteko, BEZa barne. Zifra honetan ez dira sartzen zerbitzua ezartzeko kostuak. Kostu horiek bi aldean adostasunez erabakiko dira, eskaintza irabazleak aurkezten dituen ezaugarri teknologikoen arabera.

5.- BAREMOA

Jasotako eskaintzen balorazioa honako baremu honen arabera egingo da:

1. Zerbitzua eskaniko duen ekipo teknologiko eta humanoa, % 30
2. Hedabideen kopurua, % 20
3. Alarmen kopurua, % 10
4. Estatistiten kopurua, % 10
5. Eskaintza ekonomikoa, % 20
6. Klausula-agiriari egindako hobekuntzak, % 10

